

gabe bezalako modalizatzaileen bidez adierazten da);

3. →Hartzailearen esakunearrekiko erlazioen arabera, berbaldia gardena nahiz opakoa izango da;

4. →Igorlearen eta hartzailearen arteko erlazioei esker, solaskidea eta kanpoko mundua esakuneari buruz lekutzeko saioa izango da berbaldia.

M. Azkarate


Esaldia

→Adiera berberaz erabilirik, nahiz maiz bestelako →konnotazioz ere, →sintagma

eta osagai hitzak dira, besteak beste. →Erregela sintaktiko bidez moldatutako elkarketa da esaldia; eta, era honetan, unitate sintaktiko konplexu baten atal gisa azal daiteke.

Emango den definizioa, jakina, onartua izan den gramatika→ereduaren arabera aldatzen da. Aktualizatutako mintzairatik abiatuz gero, eta osagaien analisisko metodoa onartzen bada, bere arartegabeko →osagaietan zatitzen da perpausa; eta horrela, aurrera, unitateetaraino heldu arte (hauek ez bait dira sintaxi-bidez aztergarri). Esate baterako:

mutil hauen lagunak gauza bat ekarri du



(1) →Ergatibo →marka →transformazio bidez lortuko genuke.

(2) Erregela morfofonemikoak aplikatu ondoren helduko ginatke azken kateara, ahoskatuko den kateara, hain zuzen.

Bestela esatekotan, adabegi bakoitzak esaldia mugatzen du; eta hau, hark zuzenki edo zeharbidez, menperatzen di-tuen amaiera-kateko elementu guztiez

osatua dago: *mutil hauen, mutil hauen lagunak, gauza asko, eta abar.*

J. L. Iturrioz
Itz.: Txillardegui

Esanahia

Behaviorismoaren eraginez, hizkuntzaz kanpoko kezatzat harturik, luzaro egon da esanahiaren arazoa hizkuntzalaritzatik at deserriturik: →Bloomfield, Harris, →Chomsky 1957. (Ikus «Estrukturalis-motik Gramatika Sortzailerera»).

→Praga-ko eta →Kopenhave-ko eskoletan garrantzi handiagoa aitortu zitzaion esanahiari.

→Adierazia eta →adierazlea lotzen dituen zeinu-sistema gisa definitu zuen hizkuntza →Saussure-k (→zeinuaren bi aurpegi berezi-ezinak); eta esanahia honetara zertzen da: kanporako bere funtzioaren aldetik (errealitateari buruzko atxekiduraz), eta →sistemaren barruan duen leku-gunearen aldetik; alegia, sistemako gainerako elementuekiko dituen harremanen aldetik.

Pentsamendu honen lehenengo ondorio praktikoak, →semantikaren →eremuan eginiko azterketetan lotu ziren (J. Trier: «El vocabulario alemán en la esfera del entendimiento»). Semantikari, dena dela, Hjelmslev-ek eman zion leku seguru bat, eta biderik gotorrenetik, bere lau geruzen teoriaren bidez →edukinen analisia gidatu zuelarik.

Semantika estruktural paradigmaticoren ordezkari garrantzitsuak ditugu A. J. Greimas eta B. Pottier. →Jakobson-en →ezaugarri →berezgarrien ildotik eta →analogiaz, semaren kontzeptua sartu dute semantikan. Sema horiek artikulatu egiten dira, eta sememak osatzen dituzte; erabat hauek →lexemen bide semantikoak direla. (K. Heger, K. Baldinger, S. Ullman, J. Lyons, E. Coseriu, eta abar).

Gramatika →sortzailearen bigarren urratsean, osagai semantiko bat erantsi da gramatikan; eta osagai honek sakoneko →egituren interpretazioa du helburutzat. Horren bitartez, esanahiaren azterketari izari sintagmatiko bat erantsi zaio: perpausaren barruko harreman semantikoaren deskribapena. Ordezkaririk famatuena J. J. Katz da. Hemen ere ezaugarri semantikozko sorta gisa hartzen da edukina: «Ezkongai», adibidez, «gizakume + nagusi + ezkondu gabea». Berehala jaiki ziren ezaugarri-pilaketa honen kontrako ahots kritikoak: U. →Weinreich-ek, eta semantika sortzailearen ordezkariak (G. Lakoff, Mc Cauley, etab.), ezaugarri semantiko horiek →sintaxi-bidez ere egituraturik daudela uste dute; eta, hortaz, ondorio hau ateratzen: sintaxia-

ren eta semantikaren arteko muga inon ipintzerik ez dagoela. Egia esan, hauek eta haiek kalkulu sintaktiko berri bat azaldu besterik ez dute egiten; eta kalkulu horren elementuak ez dira, omen, lexemak, hitzen eta errealitatearen arteko kontzeptu zubiak baizik.

Arrazoinetako bat, zalantzarik gabe, hau da: "«zakur» hitzaren edukina, eman dezagun, zakurrak dira" perpausaren moduko perpausari langa bat jartzea. Baina beste perpaus hau: "«zakur» hitzaren edukina, zakur deritzen abereei buruz →hiztunek duten kontzeptua da" ez da inolaz ere hobea. Nominalista diren filosofo eta logikariek (Goodman, Quine, etab.) hau erantzungo lukete: "«zakurrak» esaten dugunean, ez garela zakurrari buruz dugun geure kontzeptuaz mintzo, zakurrez berez baizik"; bestela honelako zerbait esango genuke: "zakurrari buruzko ene kontzeptua".

Husserl-ek eta Frege-k urratutako beste pentsamendu-joeran, esanahiak bere piskologi alderdi hori galtzen du; eta esanahiak orain izari logikoa du soilki. Logika intentsional deritzon horren gerozko hazkundean, intentsioak ez dira →funtzioak baizik, eta hitz hau bere alderdi logiko-matematiko soilean hartzen dugula. Izaera funtzional soil horrek, ez bestek, azal dezake perpaus baten esanahia, osatzen duten elementuen funtzio izatea (Carnap, Church, Tarski, D. Lewis, Montagne, eta abar). Beste hitzez esateko, zein baldintzatan esan daitekeen perpaus bat egiazkoa ala faltsua ote den.

Filosofia analitikoak, oro har, jarrera kritikoa hartu zuen semantikari buruz egin den ohizko formulazioaz. Austin, Wittgenstein, eta gainerakoen iritziz, «zein da hitz honi datxekion esanahia» galdera, sasi-galdera ezagun horietako bat besterik ez da. *Hitz horren esanahia* ez da deskribapen zehatz bat; ez bait dago «gauza» bati letxekiokkeen esanahirik. Filosofo hauek, eta bide beretik Alston-ek ere, definizio horiek ordaintzea proposatzen dute; eta, ordaintzea horretan, erabilera-→erregela bat ematea, hitz baten esanahia azaldu nahi dugu-

nean, egin ohi ditugun juzkuen azterketaren bidez.

Lerro hauetan →hiztegi-semanticaz mintzatu gara (paradigmatikaz), perpau-sazko sintagmatikaz, erreferentzialaz (errealitateari atzekiaz), formal-funtzionalaz.

Beste arazo batzuk, berriz, perpausaren →textuinguru hertsitik at eramaten gaituzte: Zein dira perpausen artean dauden harremanak, testu edo elkarrizketa bat trinkoa izan dadin, eta funtsa izan dezan? (textuinguruzko pragmatika).

Txillardegi

Eskantsioa

escansión / scansion / scansion

Bertsogintza greko-latinoari dagokionez, puntua neurtzeko erabiltzen den markabi-dea. Funtsean, «oinaz jo» adierazten zuen «scandere» →aditzak.

Eskualdea

región / région / region

Egintza baten edo multzo batzuen berezko →eremu geografikoari deitzen zaio *eskualde linguistikoa*.

Esparrua

área / aire / area

Gertaera bat edo gertaera-multzo bat ezau-garriztat duen geografi →eremuari hizkuntz esparru esaten zaio.

Espirantizazioa

espirantización / spirantisation / spirantization

Espirantizazioa, aho-bidearen erdigunea estutzea da; batez ere →igurzkariak eta kon-strukziozkoak gauzatzean gertatzen da. →Linguistikak diakroniko eta sinkronikoan, →soinu →herskarietatik igurzkarietara iragateari ere *espirantizazioa* esaten zaio. Euskaraz, adibidez [b, d, ʝ, g] herskariak [b, ɖ, y, ɟ] igurzkari bilakatzen dira →bokalartean.

Estatistika

Gero eta maizago, estatistikaren iker-bideak erabiltzen dira gaur →Linguistikaren →eremuan.

1) Alde batetik, eta Literaturaren laguntzaile, idazleen edo hizkuntzen →hitz-aberastasunaren gorabeherak aztertzeko: zenbat eta zein hitz erabiltzen diren egunoroko →hizketan, egile berberengan →hiztegia urteetan barrena aberastuz edo txirotuz doan, eta abar.

2) Beste alde batetik, eta hizkuntzen irakaskuntzari dagokionez, oso oinarri interesgarria da egunoroko hizketan, eta giza-giro honetan edo hartan, eskuarki zein hitz erabiltzen den, eta zein ez, zehazki jakitea. Gutxi gora-behera, horretara, testu guztien hitzetan % 75 edo % 80-a ez dira 2.000 bat baizik. Edo, bestela esateko, 2.000 hitz zentzuz, eta zientzi bidez hautaturik, ikasiz gero, aski da hizketa guztien % 80 eman ahal izateko. Honetarako, noski, estatistikaren laguntza behar da.

3) Lege funtsezko batzu (Zipf, Swadesh) estatistika-legeak dira.

4) →Komunikazio-teoriaren oinarria →fonemen (edo →morfemen) *probabilitatea* da. Hots, probabilitatea hauxe da, izan:

$$P = \frac{\text{→corpus-ean ageri diren aldekoak}}{\text{corpus-ean ageri diren guztiak}}$$

Bestela esateko: estatistika behar.

Estatistika, hitz batez, Linguistikaren laguntzaile bikain agertzen da gaur egun.

Txillardegi

Estimulua

estimulo / stimulus / stimulus

Sin.: KINADA

Teoria behavioristaren arabera, →erantzun bat (R) sortzen duen gertakari bat da *estimulua* (S). Estimulu hau hitzekoa izan daiteke; baina bestelakoa ere bai: hizketa ez da beti hitzeko estimulu bati erantzuna.

Estokastikoa

Prozesu bat, zoriaren legeen menpean dagoenean, eta probabilitate-kalkulua ezar dakiokenean, prozesu *estokastikoa* dela esaten da. Prozesu hau, hizkuntz →eredu baten oinarri gisa erabili ahal izan da. →Sinbolo elementalen kopuru mugatu batez osaturiko →mezu bat automatikoki ekoiztea ahalbidetzen duen mekanismo bezala ikusten da eredu hori; sinbolo bakoitzari iraupen berezia dagokio. Mezu bakoitza ezkeraldetik eskuinaldera joanez produzitzen da (denbora irudikatzen duen ordena lineala). Mezua osatzen duen saileko lehenengo sinboloaren hautapena librea da; baina hurrengo sinboloa emititu berria denak determinatzen du; lehenengo sinboloaren funtzioan bat emi-